



Kultura
Zientifikoko
Katedra
Cátedra
Cultura
Científica



BIDEBARRIETA ZIENTIFIKOA

Docuforuma

“Natura Bizia” dokumentalaren emanaldia eta ondorengo solasaldia

Bilbo Zientzia Plaza 2026 jaialdiari hasiera emango zaio bihar **irailaren 16an, asteazkenean**, [Natura Bizia \(2021\)](#) dokumentalaren emanaldiarekin. Lexeia Larrañagak idatzi eta zuzenduta, eta Avis Productions-ek ekoiztuta, saioa 18:30ean hasiko da Bilboko Bidebarrieta Liburutegian. Sarrera doakoa izango da, aretoa bete arte.

80 minutuko iraupena duen dokumentalak Euskadi eta Nafarroan barrena egiten du bidaia. Hego Euskal Herriko natura ondare eta biodibertsitate aberatsagatik nabarmentzen dira. Naturari buruzko dokumental ugaritan narratzaile izan den José María del Ríoren ahotsaren bidez, filmak hobekien kontserbatutako natura-gune batzuk eta ekosistema horietan bizi diren espezieen aniztasun aparta ezagutzeko aukera eskaintzen du. Dokumentalak Ingurumen Komunikazioaren Saria jaso zuen 2025eko Euskal Kazetaritza Sarietan.

Itsaslabar bertikalak, itsaso amaigabea, magiaz betetako basoak eta kareharrizko formazio handiak dira natura bere egoerarik basatienean erakusten duen lan honen agertoki batzuk. *National Geographic*-ek mundu mailarako emisio eskubideak eskuratu zituen 2022an, eta, harrezkero, kontinente guztietan ikusi ahal izan da *Nat Geo Wild* kanalaren bidez.

Emanaldiaren ondoren, ordu erdi inguruko solasaldia izango da dokumentalaren sortzaileekin: **Lexeia Larrañaga**, zuzendari eta gidoilaria, eta **Alex Gutiérrez**, produkzio zuzendari eta kameralaria. Ekimena **Eva Caballero** kazetariak gidatuko du, Radio Euskadiko *La Mecánica del Caracol* saioko zuzendariak.

Docuforum hau [EHUko Kultura Zientifikoko Katedrak](#) eta Bilboko Udaleko Kultura sailaren mende dagoen [Bidebarrietako Liburutegia](#)k antolatzen duten *Bidebarrieta Zientifikoa* hitzaldi-zikloaren parte da. Solasaldia *streaming* bidez ere jarraitu ahal izango da, [Bidebarrieta Kulturgunea](#) YouTube kanalaren bidez. Dokumentalaren emanaldia eta ondorengo solasaldia gaztelaniaz izango dira.

Jarduera hau [Bilbo Zientzia Plaza 2026 \(BZP\)](#) jaialdiaren hasiera-ekitaldia izango da. Irailaren 16tik urriaren 4ra bitartean, BZPren bederatzigarren edizioak zientziaz beteko du Bilbo, hitzaldi, erakusketa, ikuskizun, tailer eta beste hainbat jarduerekin.



Kultura
Zientifikoko
Katedra
Cátedra
Cultura
Científica



--

Docuforuma: "Natura Bizia" dokumentalaren emanaldia eta ondorengo solasaldia.

Parte-hartzaileak: **Lexeia Larrañaga**, dokumentalaren zuzendaria eta gidoilaria, **Alex Gutiérrez**, dokumentalaren ekoizlea; eta **Eva Caballero**, solasaldiaren moderatzailea.

Data: irailaren 16an, asteazkenean.

Ordutegia: 18:30etik 20:30era. Dokumentalaren emanaldia (80 minutu) eta ondorengo solasaldia (30 minutu).

Sarrera: doan, eserlekuak bete arte.

Lekua: [Bidebarrietako Liburutegia](#) (Bidebarrieta kalea 4 – Bilbo).

Hizkuntza: gaztelania.

Streaming (solasaldia): bai. [Bidebarrieta Kulturgunea](#) (YouTube) eta [Katedratik](#) (TikTok Live).



Kultura
Zientifikoko
Katedra
Cátedra
Cultura
Científica



BIDEBARRIETA CIENTÍFICA

Docufórum

Proyección del documental “Natura Bizia” y coloquio posterior

Bilbo Zientzia Plaza 2026 arrancará mañana, miércoles 16 de septiembre, con la proyección del documental [Natura Bizia \(2021\)](#), escrito y dirigido por Lexeia Larrañaga y producido por Avis Productions. La sesión comenzará a las **18:30 horas en la Biblioteca de Bidebarrieta de Bilbao**. La entrada será libre hasta completar aforo.

Con una duración de 80 minutos, el documental propone un viaje por Euskadi y Navarra, territorios que destacan por su riqueza natural y biodiversidad. A través de la voz de José María del Río, narrador de numerosos documentales sobre naturaleza, la película invita a descubrir algunos de los espacios naturales mejor conservados de ambos territorios, así como a la extraordinaria diversidad de especies que habitan en estos ecosistemas. El documental recibió el Premio de Comunicación Ambiental en los Premios Periodismo Vasco de 2025.

Acantilados verticales, un mar infinito, bosques llenos de magia y grandes formaciones de piedra caliza sirven de escenario a una obra que ofrece una mirada a la naturaleza en su estado más salvaje. En 2022 *National Geographic* adquirió los derechos de emisión del documental a nivel mundial y desde entonces el documental se ha emitido en todos los continentes a través de su canal *Nat Geo Wild*.

Tras la proyección tendrá lugar un coloquio de aproximadamente media hora en el que participarán sus creadores: **Lexeia Larrañaga**, directora y guionista del documental, y **Alex Gutierrez**, director de producción y cámara. Esta actividad estará moderada por la periodista **Eva Caballero**, directora del programa *La Mecánica del Caracol* de Radio Euskadi.

El docufórum forma parte del ciclo de conferencias *Bidebarrieta Científica*, impulsado por la [Cátedra de Cultura Científica de la EHU](#) y la [Biblioteca de Bidebarrieta](#), entidad dependiente del área de Cultura del Ayuntamiento de Bilbao. El coloquio se podrá seguir tanto de manera presencial como vía *streaming* a través del canal [Bidebarrieta Kulturgunea](#) (YouTube). Tanto la proyección como el coloquio serán en castellano.

La actividad será el acto inaugural del festival de divulgación científica [Bilbo Zientzia Plaza 2026 \(BZP\)](#). Del 16 de septiembre al 4 de octubre, la novena edición de BZP volverá a llenar Bilbao de ciencia con un amplio programa de conferencias, exposiciones, espectáculos, talleres y otras actividades.



Kultura
Zientifikoko
Katedra
Cátedra
Cultura
Científica



Docufórum: Proyección del documental “Natura Bizia” y coloquio posterior

Intervienen: **Lexeia Larrañaga**, directora y guionista, **Alex Gutiérrez**, productor y **Eva Caballero**, moderadora del coloquio.

Fecha: miércoles, 16 de septiembre.

Horario: 18:30 – 20:30 horas. Proyección del documental (80 minutos) y coloquio posterior (30 minutos).

Lugar: Biblioteca de Bidebarrieta (Calle Bidebarrieta, 4 – Bilbao).

Idioma: castellano.

Entrada: Libre hasta completar aforo.

Streaming (coloquio): sí. [Bidebarrieta Kulturgunea](#) (YouTube) y [Katedratik](#) (TikTok Live).